

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

Alkate-lehendakariaren eginkizunak lehen alkateordearen esku uztea

228/2019 Dekretua. Laura Pérez Borinaga Bastidako Udaleko alkate-lehendakariak, bat etorritz Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 23. artikulua xedatzen duenarekin, eta alkatea opor garaian kanpoan izango dela-eta haren kargua betetzearren, erabaki du:

1. Alkatearen eginkizun guztiak Silvano Garcia Arteaga lehenengo alkateordearen esku uztea 2019ko abuztuaren 24tik irailaren 3ra bitartean (bi egun horiek barne). Hark halabeharrezko alkate zereginetan jardungo du egun horietan; hala ere, alkateak berriro hartuko lituzke eginkizunak, lehenago itzuliz gero.

2. Horren berri ematea Udalbatzari egiten den lehenengo osoko bilkuran.

Hori guztia argitaratzen da, toki erakundearen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren arautegiaren 44.2. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bastida, 2019ko uztailaren 31

Alkate-lehendakaria
LAURA PÉREZ BORINAGA